

4. IKERKETA BEKA – 2016

“EMAKUME HERNANIARRAK PLAZARA!”

Hernaniko Udaleko emakume eta gizonen arteko Berdintasun Arloak IV. Ikerketa Bekaren deialdia egiten du. Ikerketa beka horrek hasieratik izan du helburu Hernaniko emakumeen inguruko historia jaso, landu eta herritarren esku jartzea. Ikusezin bihurtu izan dira askotan emakumeak historian zehar, eta ikerketa beka horien bidez ezagutzen ari gara pixkanaka zeintzuk ziren esparru desberdinetan emakumeen leku eta zereginak.

Historia ofizialean emakumeen hutsunea nabarmena da, eta horrek gure herriko kale izendegian ere bere isla du. Deialdi honen bidez Hernaniko emakumeen historia ezagutu nahi da, berreskuratuz eta ezagutzera emanaz herriko bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoan egin duten ekarpena. Horrela, bide batez, kale izendegi berrirako ere erabilgarri izan daitezke ikerketa honetatik aterako diren hainbat emakumeen izenak.

1. Ikerketa gaia

Ikerketarako gaia honako hau izango da: Hernanin izandako emakume esanguratsuen bizitzak ikertu eta plazaratzea???? beraien biografiaren bitartez. Emakumeak hautatzeko irizpideak honako hauek izan daitezke: euren garaian emakumeei zegokien rola zalantzan jarri izana, gai edota arlo jakin batean paper aktiboa jokatu izana, emakume sortzaileak izatea, balore jakin batzuen alde (berdintasuna, askatasuna, elkartasuna...) borrokatu izana, etab., historian zehar, bereziki XX. mendean.

2. Ikerketaren subjektua

Bekara bakarka nahiz taldean aurkez daiteke, eta gaia hainbat ikuspegitatik landu daiteke (historia, ekonomia, antropologia, soziologia, giza zientziak, filosofia, arte ederrak, argazkigintza, etab.).

3. Bekara aurkeztu beharreko dokumentuak

Bekaren eskaera egiteko bi txosten aurkeztuko dira:

a. Lan proiektua: bekara aurkeztu ahal izateko, parte-hartzaileek gehienez ere 15 orrialdeko lan-proiektua aurkeztu behar dute. Bertan zehaztuko dira: izenburua, ikergai zehatza, ikergaiaren testuinguru teorikoa, helburuak, lan metodologia, kronograma, baliabideak eta bibliografia.

b. Gutun azal itxi batean aurkeztu beharko dira: lan proiektuaren izenburua, bekaren eskatzaile guztien harremanetarako datuak, NAREN fotokopiak, eskatzaileen curriculumak eta bertan ageri diren merituak zurrizko dokumentazioak.

4. Eskaera egitea

Eskaera 2016ko apirilaren 4a baino lehen egin beharko da Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ). “EMAKUME HERNANIARRAK PLAZARA!” IKERKETA BEKA jartzen duen gutunazal edo karpeta batean aurkeztuko dira eskatuko dokumentu guztiak.

5. Hizkuntza

Proiektuak eta lanak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

6. Epaimahaia

Proiektua hautatuko duen epaimahaia honela eratuko da: Politika Sozialeko delegatua, Berdintasun teknikaria, Historian aditua den pertsona bat, Genero gaietan aditua den pertsona bat eta Hernaniko Berdintasun Kontseiluko bi ordezkari.



7. Jarraipen Batzordea

Berdintasun Sailak proiektuaren jarraipen egokia egiteko adituez osatutako batzorde bat izendatuko da. Gutxienez hiru bilera aurreikusten dira: proiektuaren hasieran, erdialdean eta amaieran.

8. Ikerketaren iraupena

Aukeratutako proiektua lehiaketa egin ondorengo hilabeteetan hasi beharko da eta ikerketaren azken txostena 12 hilabete igarota aurkeztu beharko da.

9. Finantzaketa

Bekaren kopuru ekonomikoa 9.000 eurokoa izango da eta hiru zatitan banatuko da: %30 proiektua hautatutakoan, %30 sei hilabetera eta %40 azken txostena aurkeztu eta epaimahaiak oniritzia ematen duenean.

10. Argitalpena

Lanek argitaragabeak izan beharko dute. Berdintasun Arloak eskubidea du saritutako lana osorik edo zati batean argitaratzeko edo, aurkeztutako proiektuak egoki baloratuak izango ez balira, beka eman gabe uzteko.

11. Jabetza Intelektuala

Jabetza Intelektualaren Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoa aplikatuko da.

12. Hautatuak izan ez diren proiektuak jasotzea

Beka jaso ez duen proiektuaren egileak berak edo baimendutako pertsona batek 2016ko maiatzaren 16tik aurrera jaso ahal izango du Hernaniko Udaleko Berdintasun Arloko bulegoan.

13. Oinarriak onartzea

Beka honetara aurkezteak oinarri hauek guztiak onartzen direla esan nahi du. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoeraren aurrean, Epaimahaiak erabakiko du.